

93. zk.
2000ko iraila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

IBAIZAR Zollo



guay.com


ZURE ATARIA INTERNETEN

ZURE ATARIA INTERNET


ZURE ATARIA INTERNETEN

www.guay.com

LEGAZPI



LEMOA
Fundazioa



Euskarak morezi duolako

Geu aldirizkaria biluzik

Jantzi dezagun denon artean

Geu aldizkaria biluzik
Jantzi dezagun denon artean

hilabete honetan

4. orr.

**Hileko gaia: Arabako
Diputazioa-Kultura Saila: 0 pta.
Geu aldizkariari**

5. orr:

**Hileko gaia: "Arabako Euskal
Hotsak-Antecedentes del
Euskera en Alava" erakusketa
ibiltariarentzat ere dirurik ez**

7. orr.

**Geu Elkartea eta
Agenda**

9-11. orr.

Guay.com

13. orr.

**"Haur eskoletan
euskaraz nahi dugu
hitz eta jolas"**

14-15. orr.

Kozkortuz: liburutan blai



16.-17. orr.

**Zollora: IBAIZAR
NEKAZAL-TURISMOA**



19. orr.

**Euskaltasunean lagun: Mikel
Lpz. de Lapinta**

20-21. orr.

**Legazpi eta
Burdina.
Lenbur
Fundazioa**

LEGAZPI

Burdinaren Haranean
Barrena

De Turismo por el Valle
del Hierro

23-24. orr.

Araba jairik jai

26. orr.

Komikia

27. orr.

**Geu
aldizkaria
biluzik...
Jantzi
dezagun denon artean!**

28.

Añanan Euskaraz Mingainean





GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Mikel Valverde. **Naturaren Isladak:** Iñaki Zorrazkin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 - **LG:** VI-582/92 - **ISSN:** 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.





ARABAKO DIPUTAZIOKO KULTUR SAILEKO SUBENTZIOAK 2000

0 pta.

‘Geu’ aldizkariari pezeta bat bera ere ez ematea erabaki du Arabako Diputazioak

GEU (GASTEIZ) ALDIZKARIA ARABA OSOAN EUSKARA HUTSEZ ARGITARATZEN DEN ALDIZKARI BAKARRA DA

- **2000ko apirilak 3:** Arazoak egon ondoren (aurrekontuak gora, aurrekontuak behera) 2000. urteko Arabako Foru Aldundiko Kultura Saileko “Euskararen sustapenerako jardueren garapenerako dirulaguntzen deialdia” azkenean ateratzen da, bertan urtero bezala aurkeztuz.

*1999an Geu-ri emandakoa: 1.529.000 pta. Honako proiektuak garatzeko: Geu aldizkaria (1.000.000 pta.)/ Arabako Euskal Hotsak erakusketa ibiltaria -oraindik lanean dihardugu- (200.000)/Geu Elkartearen ekintzak (329.000).

- **2000ko uztailak 27:** Geu aldizkariari dirulaguntzarik emango ez dioten berri txarra jakiten dugu. Azalpen, arrazoi baten eske bertara deitu eta ezin diezaguketela inolako azalpenik eman iraila arte, Kultura Diputatuarekin hitz egin behar dugula eta oporretan dagoe-la... Azalpenik ez, hortaz.

IRAILETIK AURRERA IZANGO DUZUE HONEN BERRI!!!

Aukera paregabeari

aixkiria euskaltegia Jose Mardones, 8 • tf. 945 26 35 40

amaiur euskaltegia Peru, 8 • tf. 945 22 60 50

arana euskaltegia Arana, 30 • tf. 945 25 24 00

Izena emateko epea: irailaren 22ra arte • Plazo de inscripción: hasta el 22 de septiembre



æek

**izena
eman**

“ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA” ERAKUSKETA IBILTARIArentzat ere dirurik ez

Geu-ren laguntzaz (aldizkaria eta elkarte) Gasteizko bi historiagilek prestatzen diharduten “Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava” erakusketa ibiltaria ere ez du Arabako Foru Aldundiak diruz lagundu (deialdi berbera).



“ARABAKO EUSKAL HOTSAK”
ERAKUSKETAREN ALDE BATEN
IKUSPEGIA-VISTA PARCIAL DE
LA EXPOSICIÓN



Erakusketa Ibiltaria
Exposición Itinerante

Arabako Euskal Hotsak
Antecedentes del
Euskera en Álava

Dagoeneko bi historiagile hauek 2 urte daramate lanean, 1998ko maiatzaz geroztik, bolondreski,

ekoizpenaren arlo guztiak bideratuz, eta handik eta hemendik proiektuan interesatuta dauden babesleak bilatuz, erakusketa hau prestatzeak dakartzan gastu guztiak ordaindu ahal izateko beste diru lortu asmoz...

Honez gain, Foru Aldundiak Arabako euskararen inguruko BESTE ERAKUSKETA IBILTARI BAT publikoki iragartzen du prentsaurreko batean (azaroa aldera aurkeztuko omen dute).

“Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava” erakusketa 2001. urtean izango da aurkeztua, Geu (Gasteiz) aldizkariaren 100. alea ospatzeko eskainiko dizkizuegun ekitaldi kulturalen artean.

araba bixotzian Mikel Valverde



- Labraza -

Mikel Valverde 2000

MIKO
izozkiak

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LIBURUDENDA
axular
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika
bertan
Arriaga
Campus
Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• Fotokopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia
PAPERTEGI TEKNIKOA

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multieskaintzak
Orain familia osoarentzat.

Multiofertas
MULTIOPTICAS



Bonardi bilduma
Guztientzat



Erref: B0003

3.800 pta.n
22,84 €

EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO

Lente Progresiboak

Gurasoentzat

19.500 pta.tik aurrera
117,20 €

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



www.multiopticas.com

Geu Elkartea

berriro martxan...

Uztaila eta abuztuko ekitaldien etenaldiaren ondoren hemen gaituzue gogotsu eta eskaintza berriei:

KULTUR ERROTA-ren barnean: **ARIMA BELTZA taldearen kontzertua** (Blues&Rock-a), **IRAILA-REN 28an**, osteguna, iluntzeko 8:30etan, **Parral Tabernan**.

GEU ALDIZKARIAK GOMENDATZEN DU...:

ZIGOITIA EUSKARAZ '00

- Irailak 2:

Korrika (txirringaz), herriz herri.

- Irailak 3:

Mairulegorretarako kanpai errepiketa eta bertako jaialdia (11etan)
Herri bazkaria (musika eta dantza ondoren) Gopegin.

- Irailak 9:

Pilota eta futbol partiduak.

- Irailak 10:

Meza euskaraz (Gopegin), abesbatza, luntxa eta dantzariak.




Geu-ren azken ekitaldia gogoan...

MORAU

Hernaniarra, 1963an jaioa, erabat autodidakta

Morau, kantautore berezi bezain hunkigarria -egun hiru-kote bilakatuta- gurekin izan genuen ekainaren 30ean Gaztetxean, Beñardo Goietxe berarrak -gitarra eta koroak-lagunduta (Josu Gabellanes tolosarra -bateria- ezin izan zen etorri), kontzertu zeharo atsegina eskaini zigutelarik, "Amodio domestikoa"n oinarritua, azken diskoa. Jendetza ugari ez zen bildu, baina berta-

ratutakook giro bero batez gozatu ahal izan ginen, Morau-k aireraturiko pop, intimismo, bossa, baladak, baltsak, eta bertso zaharrez bustitako mezuei esker, elektriko eta akustikoki. Eskerrik asko Morau eta Beñardo!




INFORMAZIOA: GAZTELUPEKO HOTSAK DISKETXEA-943 75 30 16-SORALUZE

IRAGARKITXOA

"Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Goizez. Urritik aurrera".
945 17 10 30 (Eukeni eta Lurdes).

naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulgatzea eta konserbatzea helburu nagusizat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)



ORKATZA (*Capreolus capreolus*)

IZA 00/7 Iñaki Zorrakin



NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



arropa eta osagarriak
HE MEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER



*"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"*

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

"Business to Business (B2B)", "Consumer", "Side", "Wap" eta tankera-ko terminologiaren artean, ingelesa eta informatika nahastuten diren gunean alegia, Guay.com Interneteko ate arabarra ezagutzeko parada izan dugu. Arabako Parke Teknologikoan kokatua eta, 1999ko ekainaren 28an jaioz, urtebeteko bizitza besterik ez duela, hilero 5 milioi pertsonak bisitatzen dute Guay Internet entresakoko web orria. Rafael Labin bertako aholkulari delegatuaren esanetan, "Guay sortu zenean ez genuen hain azkar haztea espero; orain, berriz, 22 milioi bisitari nahi genituzke lortu".

Rafael Labinekin hizketan

'guay.com' Gasteiztik mundurat



Guay ate horizontal legez jaio bazen ere, apurka-apurka handitzen joan den heinean edukinen lantegi gisa kontsolidatu da. Hau da, web-gunea baino askoz gehiago da, has-tapeneko filosofian oinarrituz ekimen ezberdinak martxan jarri baitituzte. "Ikuspuntu desberdinak garatzen saiatzen gara, kanal tematikoak lantzen ditugu eta bertan, esaterako, beste eskaintza batzuen ondoan, Karlos Argiñanok ere bere orria dauka". Gauzak horrela, Bartzelonan uztailean aurkeztutakoarekin batera orain arte apustu handia egin du sarean entresaka honek: Liburuak, bidaiak, etxebizitza...

Entresaka berri honen lidergoa erdies-teko egitasmoa oraindik Interneten dagoen gabezia eskaintzean datza

FITXA TEKNIKOA

Izen-abizenak:

Rafael Labin

Lanbidea:

**Guay Internet-eko
Aholkulari delegatua**

Jaioteguna:

1962ko ekainak 5

Jaioterria:

Gasteiz

Entrepresa:

Guay Internet S.L.

Non:

**Miñaoko Parke Teknologikoan
(Atlas edifizioa: bertan garai
berrietako enpresa teknologiko
ez kutsagarriak biltzen dira).**



**"Gure ekimena
merkatu handi
batera zuzentzen
da, betiere gure
sustraiak ahaztu
gabe eta kolabo-
razioa eskatu
diguten horiei
guztiei laguntza
eskainiz"**

IRAGARKI ZENTSURATUAK

Saretik sekulan nabigatu ez duen norbaitek tankera honetako izen guztiek aukera berdinak eskaintzen dituztela pentsa dezake. Horren aurrean Rafael Labinek berdintasuna jatorrian besterik ez dagoela azaltzen du: *"Hastape-netan ate horizontal bat baino ez zen Guay.com; orain, berriz, ate tematikoetan espezializatu gara"*. Entrepresa berri honen lidergoa erdiesteko egitasmoa oraindik Interneten dagoen gabezia eskaintzean datza. *"Izan ere, badira kanal tematiko nagusiak zeinekin liderra izatea oso zaila den; horregatik,*

hutsunea dagoen tokietan buruak izatea bilatzen dugu, hala nola, sukaldaritzan, brikolajea, etxebizitzan...". Beraz, Interneten gaur egungo lehiakortasuna gogorra da, *"egoeraren neurrira ez bazaude zeharo kanpoan gelditzen zara"*.

Gauzak horrela, Internet munduan gogor jardun nahian aurtengo hasierako hilabeteetan marketing kanpaina bati ekin zion entrepresak, eta zer-nolakoa gainera! Rafael bere ordenagailura doa eta disko gogorrean grabatua duen iragarki bat erakusten digu: *"Monty Paitonen umorearekin jokatu nahi izan genuen, baina badirudi pasatu ginela..."*. Guarda zibil batek, aguantatu ezinean, aska batean sartu eta kaka egiten du, orduan Hiru Erregeak agertzen dira eta ahots batek *"ez ezazu edonon egin"* esaten du.

"Iragarkia zentsuratua izan zen hainbat telebista katetan", dio Rafael mahaira bueltatuz. Horren ondoren ezpainak margotzen dituen mojarrena edota argiak kale egiten duen heriotz zigorrarena kaleratu dituzte. Beraien helburua iragarki estereotipatutik aldentzea da, publizitate laburra baina sakona




eginez, hartzaileak 18-35 bitarteko pertsonak direla kontuan harturik.

EUSKARA SAREAN

Merkataritzaren ikuspegitik entrepresa bat euskaraz gauzatzea oso zaila dela aitortzen du Rafael Labinek, "oso herri txikia baikara". "Gure ekimena merkatu handi batera zuzentzen da, betiere gure sustraiak ahaztu gabe eta kolaborazioa eskatu diguten horiei guztiei lagun-tza eskainiz", dio. Bere hitzetan, "euskarak interes handia dauka diasporako jendearekin harremanetan jartzeko -Argentinan, Venezuelan, eta abar...-, baina Internet deabruak maneiatzen duen gailua ere bada, eta bertan monopolio osoa daukan hizkuntza ingelesa da, gaztelera laugarrena da eta, azkenean, gainontzeko hizkuntzek oso leku gutxi daukate sarean".

Ondorioz, Interneteko globaltasunetik gure herriarekiko gertutasunera heltzeko Guay.com-ek Euskal Herrian, Gasteizen hain zuzen ere, du egoitza nagusia. "Informazioa lokala eskaintzen dugu gure abiapuntua Gasteiz izaki, baina zentrala hemen badugu ere Madrilen ordezkartza bat sortu nahi genuke, eta hortik gutxira putzuaren beste aldera salto egin".



"Iragarkia zentsuratua izan zen hainbat telebista katetan"

GOGORATZEKO IZEN ERRAZA

Orain dela urtebete eskas jendeak Interneten erabiltzen den hiztegia oraindik ezagutzen ez zuelako erraz ahazten ez den izen horietako bat asmatzea pentsatu zuen enpresa gasteiztar honek; izen neoterikoa, alegia. Merkatua, hartzaile potentzialak aztertuta, hautatu hitzen artean ezaugarri konnotatibo baikorra, freskotasuna eta jende gaztearekin bat egiten zuen terminoa haxe izan zen: Guay. Izen hau motza eta gogoratzeko erraza da, eta hartzaileekin bat dator. Orain, aldiz, jomugen artean umeei zuzendutako atea sortzean pentsatzen ari dira: "Sarean beraientzat ez dago ezer, eta publiko interesgarriena da".





Udal haur eskoletarako matrikulazioaren datuak.

Gaitzespen balorazioa

Gasteizko Udalak haur eskoletako gurasoen nahien aurkako joera du

Beste urte batez, Gasteizko gurasook D ereduaren apustua sendotu egiten badugu ere, eredu horretako eskaera kopurua berriro igo eta B eta A ereduak jaitsi direlarik, Udalaren jokaera bestelakoa izan da, B eredu bultzatzearena D-ren kaltean.

Horrela, D-tik B-ranzko desbideraketa ugari eman da, gurasoen nahiei muzin eginenez. Hainbat kasutan eskolako zuzendarien paperak bere garrantzia bete du, pertsonalki deitu baitie (banan banan gainera) kalteko ziren gurasoei aldaketa proposatuz, informazio zintzorik eman gabe. Gainera, udaletxe beratik gehiago zaintzen da eskolaren kokagunea hizkuntza aukera baino, azken hau begiratzen den azkena baita, eta guraso asko eta askori berdintsu zaigularik zein eskolatara bidali, betiere D ereduan bada.

Desbideraketa hauek egiteko aitzakietako bat “soberakinak” gela bat osatzeko aski ez



direna da, gela bat osatzeko kopurua 20 hurrekoa denean. Aitzakia horrek ez du inongo baliorik izan beste hainbatez gain, batez ere Gasteizen dagoen A ereduko gela bakarra mantentzeko, azkenean 13 hurrekin bakarrik osatu baitute. Aipatzekoa ere bada matrikulatu gabe gelditu diren haur kopurua ere, gela faltagatik. Hizkuntza-zentzua erabili balute, gelen datuak dezente ezberdinak izango ziratekeen.

Aurrekoan genioen bezala, D ereduaren goranzko eta A-ren desagertapeneranzko joerak Udalari kezka bizia pizten diote. B eredu bultzatuz (onartutako eskaerak baino matrikula gehiago izan ditu) euskaltzaleon aldetik arazo gutxiago izango dituelakoan dago, eta D ereduaren igoera gelditzeko asmoa erakusten du. Gainera, egun dauden ereduak huts nabarmenak dituzte, euskararen kalterako betiere, eta ziur gaude Udalak huts horiek areagotzen saiatuko dela bere “modelo único de corte bilingüe” xelebre hori ezartzeko asmoarekin jarraituz.

Beraz, lana gelditzen zaigu oraindik gurasooi: irailean eskolak hasterakoan segimendu zorrotzak egin behar ditugu, eman diren axolagabekeriak aztertu, eta oraingoz zintzilik gelditu zaizkigun bi gai larri serioски landuz, ludotekak eta udalekuak alegia.

Gasteiz, 2000ko ekainaren 23an

HAUR ESKOLETAN EUSKARAZ NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS

	GELAK		
	98/99	99/00	00/01
A	1	1	1
B	55	53	50
D	19	21	24
GUZTIRA	75	75	75

	ESKAERAK				MATRIKULAK			
	1999		2000		1999		2000	
A	128	8,44	119	7,80	20	1,63	13	1,16
B	872	57,48	823	53,93	862	70,20	732	65,53
D	517	34,08	584	38,27	346	28,18	372	33,30
Guztira	1517	%	1526	%	1228	%	1117	%

	ESKAERAK			KANPOAN			ONARTUAK			MATRIKULAK		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Aranbizkarra	4	49	30	1	3	4	3	46	26	0	54	20
Arana	0	26	21	0	4	2	0	22	19	0	24	15
El Pilar	7	56	28	0	12	9	7	44	19	0	66	0
Fco Landaburu	3	27	19	0	0	0	3	27	19	0	29	16
Hautzaro	10	43	55	1	7	17	9	36	38	0	43	40
Olarizu	7	33	23	1	9	5	6	24	18	0	33	15
Sansomendi	22	86	38	3	12	6	19	74	32	13	67	41
Txagorritxu	9	33	42	1	7	2	8	26	40	0	39	32
Zaramaga	4	64	33	0	3	2	4	61	31	0	72	20
Virgen Blanca	2	10	3	0	0	0	2	10	3	0	16	0
Tximeleta	11	63	47	4	16	10	7	47	37	0	50	40
Ariznabarra	13	80	74	9	32	32	4	48	42	0	74	20
Gurutzmendi	2	26	21	0	0	0	2	26	21	0	28	18
Izarra	4	40	60	0	14	10	4	26	50	0	17	61
Lakuabizkarra	13	99	61	5	47	29	8	52	32	0	57	35
Gloria Fuertes	8	88	29	2	46	12	6	42	17	0	63	0
GUZTIRA	119	823	584	27	212	140	92	611	444	13	732	373

Irailetik aurrera



"SAGU KONTUAK"
Arnold Lobel
KALANDRAKA-00
(Haurrak)

Bazen behin sagu familia bat non gauero aita bere sagutxoei ipuinen bat kontatzeko beharrean zegoen, hauek lo egingo zutela sinatuz gero. Ipuin bilduma honetan istorio hauek dauzkagu: Guztien putzua, Hodeiak, Sagu kankailua eta sagu txaparroa, Saguak eta haizea, Bidaia, Sagu agurea eta bainua. Beraz, gau bakoitzean ipuintxo bat eta berehala loak hartuko zaituzte...



"Y TÚ, ¿QUÉ COMES?"
Karen Wallace eta Ross Collins SM-00
Haur eta gazte literatura

Animaliek denetarik eta era ezberdinetan jaten dute. Animaliak maite dituzuenok liburu honetan nola egin ohi eta

zer jaten duten ezagutzeko parada ederra duzue: marraskiloak belarra zatikatzen du, pelikanoak arrain osoak irensten ditu, panda handiak banbua jaten du... Eta zuk zer jaten duzu?



"LUR IZENeko OIHANA"
Joanes Urkixo. Alfaguara-00
8 urtetik aurrera

Liburu honetan animaliek bizitzeko dituzten arazoei aurre egiten diete. Era askotako animaliek, istorioaren protagonistak, plan aurrerakoi bat prestatu dute beren bizimodua zertxobait hobetu ahal izateko: gizakiak ingurunea maitatzen hastea. Lortuko ote dute?



"ZAUDETE GELDI PIXKA BATEAN"
Andoni Egaña
ELKARLANEAN-99

Andoni Egañak ikastola garaiko Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

argazki bat eskuratu ondoren haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkigu gogora: lagun hauen kezak, pentsamendu harrigarriak, nahiak...



"BOSTAK KARABANAN"
Enid Blyton
ELKARLANEAN-00

"Bostak karabanan" hain ospetsua den Bostak bildumaren azkenengo argitalpena dugu. Lau lagun eta txakur batez osaturiko talde honek abentura paregabeetan sartzeko abilezia du eta kasu honetan misterioz eta nahastez beteriko istorio berri bat bizi izango dute.

"ITSASONTZIAN GOAZ"
Gill Davies
TTARTTALO-99
Haur literatura




Liburu honetako animaliek (hartz inurrijaleak, hartzak, ostrukak, gorilak...) munduari bira emango diote itsasontzi handi batean. Bidaian zehar India, Egipto, Ipar poloa, uharte tropikalak eta Hong Kong

irakurketaz janzteko...

ezagutzeko aukera izango dute eta han eta hemen gamelu gainean edota trineoan ibiltzen ikasiko dute. Zuk ere bidaia honen partaide izan nahi baduzu, txartela eskuratu eta animalien lagunartez goza zaitez!

"KIKIK KOKO NAHI DU"
Txikilu eta Jokin Mitxelena
ELKARLANEAN-00
Haurrentzako ipuinak



Kiki loro buruargi eta jale ona dugu. Aitonarekin bizi da tren geltoki batean. Aitonak Kikiri hitz egiten irakasten dio eta berehala hitz eta soinu asko ikasten ditu, baina 'txokolate' hitza oso luzea denez, Kikik honi "koko" deritza. Azkarraz gain Kiki oso bihurria da eta hemen berak sortu abenturak aurkituko dituzue.

"A ZER GAUPASA!"
M.A. Mintegi Larrazza
ekin-IBAIZABAL-00
Gazte literatura

Nork ez du bere lehenengo gaupasa gogoratzen? Dantza, barreak, maitasuna, adiskidetasuna..., eta lehena izateagatik, irrikitan hau noiz helduko zain. Liburu honetako sei protagonistak herri bateko

M. A. Mintegi Larrazza

A zer gaupasa!



ekin

IBAIZABAL

festetan sekulako gora-beherekin topatzen dira. Gazte hauek lehenengo gaua etxetik kanpo nola eman zuten jakin nahi baduzue, liburuari heldu egunsentia iritsi arte.




"DORRE DARDARATSUA"
Karlos Santisteban
IBAIZABAL-00
Gazte literatura

Irati eta Ikerrek andereñoak

bidalitako egunkari-berri berbera eraman dute gelara: dorre dardaratsu baten albistea. Andereñoak biak batera bertara miaztera joatea proposatzen die. Zer aurkituko ote dute dorrean? Ze ezkutapen izango ote du dorreak?

"PIRATAS DE TIERRA"
Ian Lawrence
Gran Angular-SM-00
Haur eta gazte literatura

Cornualles-eko kostaldean jende misteriotsu talde bat bizi da. Hauek untzietan tranpak jarri eta gero hondorapenetan jabetzen direnaz bizi dira. Baina hondoratze hauetako batean gazte bat onik ateratzen da eta berak bizi izandakoa dugu abenturazko liburu honen haria.



Testua: Itziar Uriarte Fdz. de Trokoniz.

GEU ALDIZKARIAREN ESKUTIK: HILEKO LIBURUA

**'WALTER SISMOLEY
ELISEOKO ZELAIETAN'**

EGILEA:

KARLOS LINAZORO

MARRAZKILARIA:


MIKEL VALVERDE

(Geu aldizkarian kolaboratzaile,
"Araba Bixotzian" atalean)

Lamia Bilduma.

ELKARLANEAN-00

<http://www.jalgi.com/elkarlanean>





IBAIZAR: AMETS EGITEKO NEKAZAL-TURISMOA

Arabako paraje zoragarri batean kokatuta dago Ibaizar nekazal-turismoa: Zollon, Artziniegatik kilometro gutxira. Iazko abenduan ireki zituen ateak Ibaizarrek, eta etxea bisitatzen duen edonor liluratuta geratzen da, bai etxearen edertasunagatik, bai inguruko bazterrek sortarazten duten lasaitasun sentsazioagatik. Gasteizko bi bikote dira nekazal-turismoaren jabeak, eta baita asteburua edo egun batzuk pasatzera doazenak gustura egoteaz arduratzen direnak ere.

Josuk, Reyesek, Koldok eta Zuriñek sekula ez zuten imajinatuko Gasteizen bizitzetik Zollon bizitzera pasako zirenik, baina are gutxiago nekazal-turismo baten jabe izango zirenik. Reyesek eta Josuk aspalditik zuten buruan herri batera bizitzera joateko ideia, eta Koldo eta Zuriñerekin komentatu ostean, abandonatutako baserriak bilatzeari ekin zioten nekazal-turismo bat sortzeko asmoarekin.

Ez zuten larregi bilatu behar izan, gehien gustatu zitzaiena azkar asko aurkitu baitzuten, Zollon hain zuzen ere. 1998ko abuztuan XVIII. mendeko baserria erosi eta berritze eta moldatzeari ekin zioten. Baserria nahiko

zaharkitua zegoenez (35 urte zeramatzen abandonaturik) lan itzela egin behar izan zuten guztia txukun jartzeko. Josu eta Koldo aritu ziren guztia konpontzen eta zaharbertzaile baten laguntza izan zuten, obra egitea samurragoa egin zitzaien.

Azkenean, 1999ko abenduan etxea bukatu eta hile bereko 29an ireki zituen ateak Ibaizar nekazal-turismoak.

IPUINETAKO ETXEA

Bi solairu eta ganbara batez osatu etxe handia eta ederra da Ibaizar. Gainera, gustu

Ibaizarrera joandako aurreneko bezeroak kolonbiar batzuk izan ziren, eta hain justu Interneten bidez ezagutu zuten lekua

handiz dekoratuta dago; izan ere, etxeko emakumeak izan dira horretaz arduratu direnak, eta ederki asmatu dutela esan daiteke. Altzari guztiak Indonesiatik ekarriak dira eta hormetako koloreak, lanparak, gortinak eta abarrek beraiek diseinatuta dira.

Bost logela ditu, eta horietako bat apartamentutzat har daiteke, sukaldea eta guzti baitauka. Beheko solairuan txokoa eta sukaldea daude, eta etxeko bazterrik abegitsuena dela esan dezakegu. Goiko pisuan, berriz, logelak daude, eta baita beste txoko edo egongela bat



ere. Logela guztiek bere bainugela daukate eta bakoitza kolore batez margotua dago, kutsu berezi eta desberdina izanik. Aipatzekoa da etxea egiteko erabili dituzten materialak ere berezi samarrak direla. Hala, adibide bat jartzeagatik, logela baten zorua Gasteizko Santa Maria elizako egurrekin eginda dago.

Bista izugarri politik eta lasaigarriak dituen terraza bat ere badago beheko solairuan. Handik, inguruko mendi eta larreak begizta daitezke, baserri, ardi, behi eta zaldiz beteta. Urrunean Salvadako mendikatea ageri da eta bere ondoan Anguloko mendia. Horretaz gainera, nekazal-turismoa 13.000 metro karratuko zelaiz inguratuta dago, eta bertan baratza ekologiko bat dute.

WEB ORRIA ETA GUZTI

Edozein nekazal-turismok aurrera egiteko zailtasunak dituela argi dago, baina, akaso, Ibaizarrek apur bat zaila-

Nekazal-turismoa baino gehiago

Atsedeen hartzeko lekua da, dudarik gabe. Aitzitik, abentura gustukoa duenak aukera paregabea dauka beti amestu dituen gauzak egiteko. Izan ere, nekazal-turismotik bertatik ateratzen den globoan bidaiatzeko parada eskaintzen du Ibaizarrek. Honez gain, inguruetan bestelako jarduerak ere praktika daitezke: piraguismoa, parapentea, espeleologia, skuad (lau gurpileko motorrak), irteera gidatuak eta bizikletaz ibiltzeko aukera.

Prezioak, berriz, honakoak dira:

- Logela bat alokatzea: 6000 pta.
- Gosaria: 500 pta.
- Bazkaria: 3000 pta.
- Afaria: 2500 pta.

**Aukera dago, halaber, hiruzpalau egunetako aurrerapenarekin taldeentzako bazkariak enkargatzeko.*

INFORMAZIOA: 945 39 66 86

IBAIZAR BASERRIA, 4 SOJO-ZOLLO 01478 ARABA

go du merkatuan leku txiki bat egiteko. Josuk azaltzen digunez, Zollo ez dago oso leku ezagunean kokatuta, eta hori nolabaiteko traba izaten da jendea erakartzeko orduan. Horretaz jabetuta, etxearen jabeek Interneten web orri bat irekitzea otu zitzaion nekazal-turismoaren berri leku guztietara zabaltzeko. Zazpi orrialdez osatu web orria da eta bertan etxearen edertasun guztia, eskaintzak, zerbitzuak eta abar azaltzen dira. Helbidea honakoa duzue: www.euskalnet.net/eskutxi. Posta elektronikoa, berriz, honakoa: eskutxi@euskalnet.net

Ibaizarrera joandako aurreneko bezeroak kolonbiar batzuk izan ziren, eta hain justu Interneten bidez ezagutu zuten lekua, eta horrenbeste gustatu zitzaion, hara joatea erabaki zutela. Internetek Ibaizar ezagutarazten lagundu diela aitortzen du Josuk, baina garbi du oso ezaguna ez den leku batean egoteak zailtasun handiak eragiten dituela lanbide honetan. Alta, itxaropentsu eta gogotsu dira bi bikote hauek, eta espero dute etxea aski ezaguna egiten denean hain leku "galduan" egotea abantaila bihurtzea.

Zollo ez dago oso leku ezagunean kokatuta, eta hori nolabaiteko traba izaten da jendea erakartzeko orduan (Josu)



**'El Mueble' aldizkarian, "Casas de Campo" gehigarrian ere agertzen da IBAIZAR*



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

arabarrok euskarari BAI



eusko
alkartasuna



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73



Zaldieran Plaza, 10 - Tfno.: 945 22 65 64



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldieran plaza • GASTEIZ

Mikel Lopez de Lapinta: "A ereduan ezin da euskara ikasi"



Mikel Lopez de Lapinta 1974ko ekainaren 3an jaio zen Gasteizen. Sansomendin bizi da guraso eta anai-arrebekin. Heziketa Fisikoko Magisteritza ikasketak bukatu ditu eta baikor agertzen da horretan lan egiteko aukeraren aurrean, EGA lortuta lana ba omen dago eta. Bere bizitza osoan A ereduan egon ondoren bere euskara maila oso baxua zela konturatuta, hiru urte daramatza Mikelek euskara gogoz ikasten. Gustura dago IKAn eta Lazkaoko barnetegian lau hilabete eman ostean hara laster itzultzeko asmotan da.

- Duzun biziorik handiena?

- Tabakoa eta alkohola.

- Bertutea?

- Zintzotasuna edo...

- Zer eskatzen diozu bizitzari?

- Zoriontasuna, osasuna eta lan egiteko aukera bat.

- Zer eskatzen du herriak?

- Beste gauza batzuen artean etxebizitza duinak. Baina azken finean bizi ahal izateko aukera bat.

- Jeniorik ba al duzu?

- Bai, mundu guztiak bezala.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

- Jendea astuna izateak eta gauza bera hamaika aldiz errepikatzeak.

- Geu elkarte eta aldizkariaren berririk bai?

- Bai, euskaltegian hauen berri eman

digute.

- Egunkariaren bat?

- Zabalik.

- Pelikula onen bat?

- "El Fugitivo", oso ona da.

- Telebista programarik?

- Ez dut telebista asko ikusten.

- Gustuko aktorearen bat?

- Harrison Ford.

- Jaki goxoren bat?

- Espagetiak tomatearekin, gaztarekin...

- Zure gorputzaren atalik politena?

- Oso zaila da hori esatea, agian ez nuke nik esan beharko.

- Txikitako oroitzapenik?

- Etxebizitza berrira joan ginenekoa. Dena zen berria.

- Oporrak non eta zertarako?

- Urtaroaren arabera. Udan mendian eta hondartzan. Eta, zertarako? Deskonektatzeko.

- Liburu gomendagarriaren bat?

- Oso gutxi irakurtzen dut, baina hala ere "Kutsidazu bidea Ixabel" gomendatuko nuke.

- Idazleren bat?

- Stephen King, esate baterako.

- Munduan dagoen denbora guztia izanez gero, non, zertarako?

- Leku askotan, eta bidaiatzeko.

- Gasteizen biziko ez bazina non biziko zinateke?

- Zarautzen edo Orion, adibidez.

- Gasteizek duen onena?

- Erosotasuna, garbitasuna eta oro har, denetarik dugula.

- Txarrena?

- Etxebizitzaren prezioa.

- Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?

- Bai, baina oso zaila da une honetan...

- Zer nahi zenuke jendeak esatea zu hil eta gero?

- Behin hilda, bost axola niri jendeak esango duena!

- Zein duzu momentuko kezkarik handiena?

- Lanpostu bat aurkitzea.

- Gustuko kolorearen bat?

- Urdina.

- Musika talde gogorik?

- Oskorri, adibidez.

Lenbur Fundazioa euskal burdingintzaren historia eta errealitatea ikertu eta hedatzeko sortu da

BURDINAREN HARANA. LEGAZPI.

Ainhoa Ferron - Arg. Lenbur

BURDINAREN HISTORIAN BARRENA. LENBUR-EN PROIEKTUA

LENBUR Fundazioa edo "Legazpia, Natura eta Burdina" izenpean Euskal Herrian hainbesteko garrantzia izan duen burdingintzaren inguruko proiektu zabala dago. Lenburrek udal-erri osora zabaltzen du bere lana, Legazpiko herria eta biztanleria Euskal Herriko burdingintzaren aro guztiei estuki loturik egon baita. Burdinaren langintzan desberdin daitezkeen hiru garaiek Legazpin izan dituzte sorleku eta bilakaera, ikatzaren arotik uraren eta labe garaien aldietara. Eboluzio honen ondorioz, Legazpik baliabide natural garrantzitsuak, historiaurreko aztarnategiak eta kultur ondare aberatsa ditu, denak Burdinaren Kulturari lotuak eta mota desberdinetako aztarna fisikoetan gauzatzen direnak: meategiak, haize-burdinolak, presak, ubideak, ur-burdinolak, errotak eta burdinaren ustiapenari loturiko lantegiak.

Ondare kultural anitz honi bultzada berria eman nahian 1997an Lenbur Fundazioa sortzen da. Garapen lokalerako egitasmo honen xedea zonalde osoko bitarteko naturalen eta artisautza eta industria jardueren kudeaketa egitea da. Hau da, Lenburrek Legazpiko baliakizun hauen guztien erabilpen integratua sustatu nahi du azkenengo milurtekoan herria identifikatu duten elementuak batuz: gizakia, natura eta burdina.

Legazpiko herria eta biztanleria Euskal Herriko burdingintzaren aro guztiei estuki loturik egon da

Proiektu handizale honen atzean eskualdeko Udalak, bestelako entitate publikoak, kulturaren munduko pertsonak eta enpresak biltzen dira kontserbazioa, berreskurapena, ikerketa eta hedapena arloetan lan egiteko. Gaur egun Legazpiko Udala, Patricio Echeverria Korporazioa, G.S.B (Grupo Siderúrgico Vasco), FPL (Forjas de Precisión Legazpi), Urola Kooperatiba Elkartea, Zorrotz Comercial eta Eduardo Chillida dira Lenburreko partaideak.

Burdinaren bidea

Proiektua aurrera eramateko Lenburrek museo eta interpretazio-gune sare bat sortzeko asmoa dauka eta dagoeneko martxan dira sarea eratuko duten horietako batzuk, adibidez: Mirandaolako Parkea, Gaztaren Artisauingintza-Zentroa edota Igaraldeko Errota.

Helburua elementu hauekin guztiekin ibilbide eta zonalde museografiko bat sortzea da, Legazpiko Lurralde-Museoa, burdingintzaren teknika, zientzia, industria, gizartea eta abar bilduko dituen. Baina makinak, tresnak eta asmakizunak aintzat hartzeaz gainera, museo honen xedea tokirik garrantzitsuena pertsonen ematea da, burdinaren historiaren benetako pertsonaje nagusi eta eragileak izan direlako.

**Xedea tokirik garrantzitsuena
pertsonen ematea da, burdinaren
historiaren benetako pertsonaje
nagusi eta eragileak izan direlako**





Esan bezala, bidea hasita dago eta dagoeneko urrats esanguratsuak eman ditu Lenburrek gure historiaren berreskurapenean:

- *Europatik, Eusko Jaurlaritzatik eta Aldunditik etorritako 800 milioi baino gehiagoko inbertsioa berreskurapen, hedapen, ikerketa eta ondare kulturalaren erosketan.*
- *Burdinaren kultura eta historiarekin harremandutako 18 eraikinen kudeaketa.*
- *Besteak beste, Euskal Herriko, Katalunia, Asturias, Madril, Andaluzia, Frantzia, Finlandia, Belgika eta Greziako turismo foroetan partehartzea.*
- *1997-1999 urteen artean: 120tik gorako lagun LENBUR-entzat lanean, 40.000 bisitari baino gehiago eta 4 enpresa berriren sorrera.*
- *Berreskurapen lanak:*
 - *Brinkola-Telleriarte-Udana Parkea.*
 - *Hirigunea.*
- *Lurralde mailako heziketa-programen sorrera:*
 - *Artisau-Burdingintzako Eskola.*
 - *Emakumearentzako lan eta heziketa programa.*

INFORMAZIO GEHIAGO: 943 73 04 28



Mirandaolako Kondeira

Burdinaren inguruko kultur ondarea zabaltzeko asmotan Lenburrek ikuskizun bereziak eskaintzen ditu Mirandaolako Parkean. Apirila eta urria bitarteko igande guztietan, eta azaroa eta martxoa bitartean hileko lehenengo igandean, XIV. mendean olagizonek burdina nola lantzen zuten ikusi eta bizi ahal izateko ola martxan jartzen da. Gizakia, ura, airea eta suak mundu magiko batera eramaten dute bisitaria. Izan ere, magiak eta mirariak badute harremanik Mirandaolako burdinolarekin.

Kondeira zaharrak dioenez duela 500 urte zerbait bitxia gertatu omen zen Mirandaolan. Jaieguna zen eta olagizon talde bat atsedean eguna errespetatu gabe, meza entzun ondoren, burdinolara joan zen lanera. Mea behin baino gehiagotan hustu eta ordu asko lanean eman eta gero, gutxienez 600 libera burdin aterako zutela

espero zutenean gurutze itxurako burdin-ore txiki bat besterik ez zuten lortu. Gurutzeak ez zuen 12 libera baino gehiago pisatzen eta legazpiarrek zigortzat hartu zuten gertatutakoa eta Jainkoaren deia izan zela pentsatu, atsedean eguna ez errespetatzeagatik. Mende erdia igaro eta gero Iruñeko Apezpikuari galdetu zioten gertaera hartaz eta hark, Legazpiko hainbat lekukoren hitza entzun ondoren, miraritzat jo zuen jazotakoa eta aurrerantzean atsedena errespetatzera gonbidatu zituen herritarrek, eta gurutzea bisitatuko zutenei eta gurutzearen omenezko ospakizunetarara joango ziren guztiei barkamena eskaini zien.

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

ITURRIETA

Sagardotegia



**UDARAKO PLANIK
FRESKAGARRIENA!**

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

ARABA JAIRIK JAI

Artziniega



A r a b a k o Kantauri aldean dagoen herri ederrak Erdi Aroko egitura gordetzen du oraindik ere. Herriak berezkoa duen azpiegiturari probetxu ona baino hobea ateratzea erabaki, eta urtero Erdi Aroko merkatua antolatzen du. Duela bakarrik hiru urte antolatu zen lehendabizikoa, baina horren denbora laburrean ezinbesteko zita bihurtu dute merkatu ikusgarria.

“Enzinako Andramariaren” omenezko jaiak irailaren 1 eta 10a bitartean ospatzen dira.

• Ez galdu!!

- Erdi Aroko merkatua, irailaren 3an, igandea.
- Irailaren 9an, larunbata, Enzinako Ama Birjinari bisita. Erromeria.

Adi!! Aiarako herrietatik Artziniegako jaietara joateko autobusak egongo dira.

Informazioa: 945 39 63 53

Beranturi

Jasokunde Andramariaren jaiak ospatzen dituzte beranturiarrek irailaren bigarren asteburuan. Iraileko hainbat jai arabar bezala,

Zeledon-en jaitsieraren antzerako ekitaldiarekin hasten dira Beranturiko jaiak, aldaketa txiki batekin baina: Beranturin jaitsi bainoago igo egiten da Zeledon Ama Birjinaren egunaren bezperan.

• Ez galdu!!

- “Zeledonen jaitsiera”. Irailaren 7an.
- 8an: Su artifizialak eta meza osteko pilota partidua.
- 9an: Giza gazteluak. Hiru pisuko ‘gazteluak’ egiten dituzte Beranturiko gazteek. Etkez etxe joaten dira familiak agurtzen.
- 10ean: Zamarro eguna. Antzinakoen modura jantzita plazan biltzen dira herrikoak bazkari legea egiteko.


Informazioa: 941 33 70 59

Bernedo

Iraileko Ama Birjinaren egunaren (irailak 8) inguruan badira Bernedoko jaiak ere. Eta egun nagusia horixe: Andra Mari Jaiokundekoaren eguna.

Irailaren 8tik 10era bitarteko asteburuan gazteentzako kontzertua, haurrentzako jolasak eta helduentzako hainbat ekitaldi izango dira Bernedon.

Informazioa: 945 37 80 41





Eltziego

Eltziego

Barrihuelo Eltziegora jaistean hasten dituzte herrikoek Plazako Andramariren omenezko jaiak. Irailaren 7tik 10era bitarteko egunetan daude jaietan eltziegarrak.

- Ez galdu!!
 - Irailaren 7an: Barrihueloren jaitsiera eta jaien hasiera.
 - 8an: Meza osteko lora eskaintza ikusgarri eta hunkigarria.

Samaniego

Valleko Ama Birjinaren ohorezko jaiak dira Samaniegoko herri ardangilearen jaiak, 7 eta 11a bitartean.

- Ez galdu!!
 - 7an: Txupinazoa. Irrintzi egiten duen kar-toizko astoaren igoerarekin hasten dira jaiak.
 - Baselizan Ama Birjinari egiten zaion lore eskaintza.
 - Dantzaldiak, pilota partiduak eta herriko lore eta barazkien lehiaketa.
 - Igandean ardandegietara iristen da jaia. Lanerako tokia dena jai leku bilakatzen da

egun batez eta bertan bazkaldu eta dantza egiten dute herritarrek.

- 11an: Herrerako porturako erromeria. Bazkaldu eta gero, herrirako bueltan, astoa eta jaiei agur esaten diete Samaniegokoek.

Informazioa: 941 60 91 04

Kripan

Iraileko Ama Birjinari zor dizkiote kripandarrak ere jaiak. Iraileko bigarren asteburuan ospatuko dituzte. Hasiera: Montortaren jaitsiera eta txupinazoarekin.

Informazioa: 941 60 81 08

JAI GEHIAGO:

Ilarduia, Dulantzi, Olabarri, Elosu, Korres, Urbina, Murgia, Urturi, Zuia...



Samaniego

ADI ARABAKO JAIEI BERAZ!!!

Informazio gehiago: <http://www.jet.es/dfa>

IRUSTA

poteo eta pintxoak **TABERNA**

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ


EL  **men**
BAR **u**
Kutxi **e**
g
u
n
e
k
o

LA RIOJANA
jatetxea

on egin! bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

**Ka
La
Mu**
TABERNA



Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5
Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

H I O U A K
JATETXEA
Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

bar • restaurante

albéniz
Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74



PARRAL
SAN FRANCISCO KANTOLA 4 GASTEIZ
Tfno: 276833-01001
Astalohetik
Jarako
BESITZINAK
Astalohetik
Pintxoak
Kantak
Kantak
Kantak



HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



...NOIZBEHINKA,
LANEAN JARRAITZEA
GOGORRA EGITEN
ZAIT...



Geu
aldizkaria
biluzik



Jantzi
dezagun
denon
artean

Euskarak
merezi duelako

dantzarik & talokolo, pintur eta porrotx, artisoa azoka &
 umeentzako herri kirolak & gaiteroak & pilota partidua &
 etsaklit & herri bazkaria & apartalekua & mirandako txistulariak &
 joxe ripleu & erraldotak & txikilandia & txosnak & eskenatolak & eta hainbeste gehiago...

ERRIBERA GOITIA 2000 POBES



24 DE SEPTIEMBRE, DOMINGO
IRAILAREN 24, IGANDEA



AÑANAKO ESKUALDEKO
EUSKARAREN ALDEKO
V. JAIA



V. FIESTA POR EL
EUSKERA DE LA
CUADRILLA DE AÑANA

EUSKARA AÑANAN *mingoan*

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa